

## GAKO EKONOMIKOAK

- Delta bariantearen hedapenak tertatze tasa edo erritmo motelagoko eskualdeetan, Txinako ekonomiaren hazkuntza moteltzeak eta hango gobernuaren esku hartzeko neurriek zalantza ugari sortu dituzte mundu mailan ekonomiaren suspertzearen erritmoari dagokionez.
- Inflazioak gora jarraitzen du eta arreta-gune jarraitzen du izaten.
- Zalantzak areagotu ahala, banku zentralak eta gobernuak baldintzarik gabe laguntzen jarraitzen dute.
- Itxiera positiboak burtsan eta kredituaren jarrera ona.
- Dolarrak irabaziak izan ditu euroarekiko, petrolioak zuzenketa garrantzitsua izan du eta urreak aldaketarik gabe itxi du.

## MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Arlo makroekonomikoan, fokua, inflazioaren azken hileotan zentratua, hazkuntza ekonomikoan jarri da berriz ere. Abuztuan zehar, moteltzea adierazten zuten datu makroekonomiko batzuk izan dira hainbat zona geografikotan eta ekonomiaren hainbat eremutan, mutazio berriei lotutako Covid 19aren olatu berriaren kutsatzeak mugatzeko ezarritako murrizketak direla eta. Nagusiki Asia zonan delta bariantearen hedapenak, Txinaren suspertzearen nolabaiteko moteltzea eta hango gobernuaren esku hartzeko neurriek zalantza sortu dituzte suspertze orokorraren inguruan. Izan ere, Txinako Banku Zentralak atzera egin behar izan baitu pizgarriak kentzeko prozesuan. Ildo beretik, mundu mailako gainerako diru agintariek euren konpromiso osoa azaldu dute suspertze ekonomikoa sendotzearekin, nahiz eta inflazio datuek altu jarraitzen duten. Ipar Amerikako uztailleko IPCaren datuak prezioen gorakada adierazten zuen berriz ere, baina ekainean baino mantsoago, Fedaren diskurtsoaren ildo berean, zeinak dioen inflazioaren igoera aldi baterako dela eta goiz dela tipoen igoerei buruz hitz egiten hasteko. Hortaz, Jackson Holeren banku zentralako arduradunen urteko esperotako hitzorduan, Erreserba Federalaren presidentek, Jerome Powell, urte bukaeran aparteko pizgarriak pixkanaka kentzen hasiko zirela iragarri bazuen ere, hitzaldian interes tasen ezohiko mailek jarraituko zutela nabarmendu zuen. Europa mailan, hausnarketa estrategiko baten ondoren, BCEak Fedak jarritako bideari jarraitu dio, eta etorkizunerako inflazio handiagoa baimenduko du pizgarriak kendu aurretik. Zerga arloan, suspertze ekonomikoari laguntzeko neurriak bilakatu dira protagonista. Hilean zehar jakin genuen Estatu Batuetako Senatuak 1 milioi dolarreko oinarritzko azpiegituren paketea onartu zuen, non 550.000 milioi inbertsio berriei dagozkien, dagoeneko onartuta dauden sailen eratorriak baitira gainerakoak.

## ERRENTA ALDAKORRA

Hazkuntza orokorraren inguruan zalantza badaude ere, Txinaren arauen bitartezko esku hartzeak eta zalantza ugari beste fokuenak, enpresen emaitzen argitalpen sendoak eta zerga zein diru laguntzek errenta aldakorreko merkatuak bultzatzen zituzten abuztuan irabaziekin bukatzeko. Amerikako indize nagusiek errekor berriak izan zituzten eta Europan, Stoxx 600 eta Alemaniako Dax indizeak maximo historikoetara hurbildu ziren. Wall Streeten, aldiz, Nasdaq indizeak % 4,16 igo zen, S&P 500 indizeak % 2,90 eta Dow Jones indizea, aldiz, % 1,22. Europako plazei dagokionez, Eurostoxx 50 indizeak % 2,62ko igoera izan du, eta Ibx 35ak, aldiz, % 1,97. Japoniak eta emergenteen multzo osoak ere % 2,95 eta % 2,42ko igoerekin bukatu zuten hila, hurrenez hurren.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2021eko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	8.846,60	EUR	%1,97	%9,57
EUROSTOXX-50	EUROPA	4.196,41	EUR	%2,62	%18,12
S&P-500	AEB	4.522,68	USD	%2,90	%20,41
DOW JONES	AEB	35.360,73	USD	%1,22	%15,53
NASDAQ 100	AEB	15.582,51	USD	%4,16	%20,90
NIKKEI-225	JAPONIA	28.089,54	JPY	%2,95	%2,35
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.308,67	USD	%2,42	%1,35
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	3.141,35	EUR	%2,35	%16,78

Iturria: Bloomberg

## ERRENTA FINKOA

Udan zehar interes-tasak behin baino gehiagotan murriztu dira, kurben tarte luzeetan bereziki, nahiz eta abuztuan zehar efektu hori hein batean alderantzizkatu den hamar urterako bonu alemanaren eta amerikararen errentagarritasunen igoera eraginez. Hortaz, AEBko 10 urterako zorraren interesak % 1,31ekin itxi zuen uztaila, eta Alemaniako zorrak, aldiz, % 0,38arekin. Espainiako hamar urterako tasari dagokionez, haren errentagarritasuna % 0,34ra arte joan zen. Kredituak, aldiz, positiboan bukatu zuen hila errenta finko pribatuko diferentzialak estutuz.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2021ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,55	0,00	0,00
	6 HIL.	-0,53	0,00	0,00
	12 HIL.	-0,50	0,00	0,00
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,71	0,05	-0,01
	5 URTE	-0,68	0,06	0,06
	10 URTE	-0,38	0,08	0,19
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,61	-0,02	0,02
	5 URTE	-0,36	0,03	0,03
	10 URTE	0,34	0,07	0,29

Iturria: Bloomberg

## DIBISAK ETA LEHENGAIK

Dibisen merkatuan, dolarren eta euroaren arteko gurutzatzeak moneta amerikararen igoerarekin itxi du hila. Lehengaietan, petrolioaren prezioak 2020ko urriaz geroztik izan duen galera handiena izan du Ekialde Ertaineko tentsioen, delta bariantearen hedapenaren eta suspertze ekonomikoaren erritmo mantsoagoaren eta dolarra garestitzearen ondorioz. Urreari dagokionez, 1.813,62\$/ontza-rekin bukatu du, aldaketarik gabe.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg